

61. SU ARTIFIZIALEN NAZIOARTEKO LEHIAKETA

61 CONCURSO INTERNACIONAL DE FUEGOS
ARTIFICIALES

ABUZTUAK 8 -15 AGOSTO | KONTXAKO BADIA – BAHÍA DE LA CONCHA



AURKIBIDEA | ÍNDICE

- **Kartela | Cartel 3**
- **Egitaraua | Programa 5**
- **Pirotekniak lehiaketan | Pirotecnias a concurso 6**
- **Aste Nagusiko amaiera | Clausura de la Semana Grande 10**
- **Sariak | Premios 13**
- **Epaimahai Ofiziala | Jurado Oficial 14**
- **Epaimahai Gaztea | Jurado Joven 15**
- **Herria Epaimahaia | Jurado Popular 16**
- **Segurtasun neurriak | Medidas de seguridad 17**



KARTELA | CARTEL

EGILEA: JORGE ELÓSEGUI ASTRAIN - ESTUDIO PRIMO

Aurtengo kartelaren egilea Jorge Elósegui Astrain donostiarra da. 2005etik diseinatzaile lanetan aritu da, lehenengo ehungintzan eta gero bere kabuz Estudio Primo sortu zuen 2013an. Bere aurpegi agerikoena da. Batez ere diseinatzaile grafiko eta arte zuzendari gisa egiten du lan, nahiz eta produktu eta espazioen diseinuarekin lotutako proiektu ugari ere garatu dituen. Proiektu pertsonalak ere garrantzitsuak dira berarentzat, bere eguneroko lanean normalean praktikan jarri ezin dituen ideia mordoari irteera emateko modua baita.

AUTOR: JORGE ELÓSEGUI ASTRAIN - ESTUDIO PRIMO

El autor del cartel de este año es el donostiarra Jorge Elósegui Astrain. Desde 2005 ha estado trabajando como diseñador, primero en el sector textil y más tarde por su cuenta fundando Estudio Primo en 2013. del que es la cara más visible. Trabaja principalmente como diseñador gráfico y director de arte, aunque también ha desarrollado numerosos proyectos relacionados con el diseño de producto y de espacios. También los proyectos personales son importantes para él ya que es la forma de dar salida a un montón de ideas que normalmente no puede poner en práctica en su trabajo diario.

KARTELA

Su artifizialak jaurtitzea eta gaueko zero ilunean mugitzea esperientzia estetiko paregabea iruditu izan zaio beti Jorgeri. Eskala monumentalean egindako performance artistiko baten modukoa da, badia osoa inbaditzen duena, eta gauero dozenaka mila pertsonak parte hartzen dute bertan. Komunitatean gozaten den zerbait magikoa. Forma, kolore eta soinu aniztasunak ikus-entzunezko ikuskizun paregabe bihurtzen dute su artifizialen lehiaketa.

Kartelean, orban eta zirriborro ezberdinen bidez, argi, kolore eta soinuen festa hori ilustratu nahi izan du. "Suak" kartela diseinatzerakoan hondo beltza erabili ohi da, eta horren azalera guztia erabili ilustratzeko. Kasu honetan, Jorgek konposizio interesgarriago bat egin nahi zuen, ilustrazioa goi-eskuinaldean utzita. Hala, kartelaren atzealde argiak ilustrazioa nabarmentzen du, eta su artifizial batzuen ideiarekin jolasten du, su horiek lehertzen diren hondo beltzetik ihes egiten baitute.

CARTEL

El lanzamiento de los fuegos artificiales y su movimiento en el cielo oscuro de la noche siempre le ha parecido a Jorge una experiencia estética incomparable. Es como una performance artística a una escala monumental, que invade toda la bahía, en la que participan cada noche decenas de miles de personas. Algo mágico que se disfruta en comunidad. La variedad de formas, colores y sonidos convierten al concurso de fuegos artificiales en un espectáculo audiovisual único.

En el cartel simplemente ha querido ilustrar, a través de diferentes manchas y garabatos, esa fiesta de luces, colores y sonidos. Lo evidente al diseñar el cartel de "los fuegos" suele ser usar un fondo negro y usar toda la superficie de este para la ilustración. En este caso, Jorge quería hacer una composición más interesante dejando la ilustración en la parte superior derecha. De esta manera el fondo claro del cartel hace que destaque la ilustración y juega con la idea de unos fuegos artificiales que escapan del fondo negro sobre el que explotan.



**61. NAZIOARTEKO
SU ARTIFIZIALEN
LEHIAKETA**

**61 CONCURSO
INTERNACIONAL DE
FUEGOS ARTIFICIALES**

2026ko Abuztuak 8 – 15 de agosto de 2026

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN





EGITARRAUA | PROGRAMA

Abuztuaren 8tik 15era | Del 8 al 15 de agosto

Alderdi Eder eta Kontxako badia | Alderdi Eder y bahía de La Concha

22:45ean

- Abuztuak 8, larunbata – Sábado, 8 de agosto
PIROTECNIA ALPUJARREÑA (Granada)
- Abuztuak 9, igandea – Domingo, 9 de agosto
XENA PYROTECHNICS (Herbehereak / Países Bajos)
- Abuztuak 10, astelehena – Lunes, 10 de agosto
PIROTECNIA TAMARIT (Valentzia / Valencia)
- Abuztuak 11, asteartea – Martes, 11 de agosto
PHOENIX FIREWORKS (Erresuma Batua / Reino Unido)
- Abuztuak 12, asteazkena – Miércoles, 12 de agosto
PIROTECNIA VALENCIANA (Valentzia / Valencia)
- Abuztuak 13, osteguna – Jueves, 13 de agosto
GIANNI VACCALLUZZO (Italia)
- Abuztuak 14, ostirala – Viernes, 14 de agosto
PIROTECNIA GIRONINA (Valentzia / Valencia)

Aste Nagusiko Amaiera - Clausura de la Semana Grande.

Piromusikala - Piromusical

- Abuztuak 15, larunbata – Sábado, 15 de agosto
PIROTECNIA VALECEA (Araba / Álava)



PIROTEKNIAK LEHIAKETAN | PIROTECNIAS A CONCURSO

- **Abuztuak 8 agosto | Pirotecnia Alpujarreña (Granada).**

Enpresaren jatorria 1890. urtean dago. Gaur egun, laugarren belaunaldiak kudeatzen du enpresa eta segurtasunean, ekoizpenean eta kalitate-kontrollean egindako azken aurrerapenak sartu dituzte El Cerro parajea daukaten egoitzan, Ugijarko udalerrian (Granada).

Enpresak su artifizialak egiten, diseinatzen eta jaurtitzen ditu, hainbat ekitaldi eta ospakizunetarako, eta azken urteetan ekoizpenaren zati handi bat Espainiako beste enpresa batzuk hornitzeko erabiltzen du. Instalazio berriak eta modernoak ditu produktu piroteknikoak fabrikatzeko eta biltegitatzeko, eta 50.000 m²-ko azalera eta 50 eraikin baino gehiago ditu. Andaluziar enpresa ezaguna da bere estilo kementsuagatik eta berak fabrikatutako materiala erabiltzen duelako, bere koloreen garbitasunagatik eta bere trumoiaren sendotasunagatik nabarmentzen dena.

Los orígenes de la empresa se remontan al año 1890. Hoy es la cuarta generación quien la gestiona e incorpora los últimos avances en seguridad, producción y control de calidad. El emplazamiento del taller de pirotecnia se encuentra en el Paraje El Cerro, término municipal de Ugíjar (Granada).

La empresa está dedicada a la fabricación, diseño y disparo de fuegos artificiales para diferentes eventos y celebraciones, destinando los últimos años, gran parte de su producción a proveer a otras empresas de ámbito nacional. Con nuevas y modernas instalaciones destinadas a la fabricación y almacenaje de productos pirotécnicos cuenta con una superficie de 50.000 m² y más de 50 edificios. La firma andaluza es conocida por su estilo energético y el uso de un material de fabricación propia que destaca por la limpieza de sus colores y la contundencia de sus truenos.

- **Abuztuak 9 agosto | Xena Pyrotechnics (Herbeherak | Países Bajos).**

Xena Pyrotechnics Herbehereetako enpresa bat da, 1999an sortua eta pirotekniaren industrian liderra. Ospe handia dute su artifizialen ikuskizun bikainak eskaintzeko, bai kanpoaldean, bai barrualdean. Gaur egun, urtean 100 piroteknia-ikuskizun ekoizten dituzte, gutxi gorabehera.

2019ra arte Scheveningeneko su artifizialen jaialdia antolatzen zuten, eta 150.000 bisitari inguru erakartzen zituen asteburu bakar batez. Kalkar-eko (Alemania) Zena Trophy-rako ikuskizun piroteknikoak ere antolatzen dituzte, eta, urtero, amaierako ikuskizuna egiten dute Nazioarteko Portuaren Egunean, Rotterdam-en bihotzean. Segurtasuna eta fidagarritasuna dira enpresaren funtsezko balioak.

Xena Pyrotechnics es una empresa de los países bajos fundada en 1999 y líder en la industria de la pirotecnia. Cuentan con una sólida reputación para ofrecer espectáculos de fuegos artificiales excepcionales, tanto en exteriores como en interiores. Actualmente producen aproximadamente 100 espectáculos pirotécnicos al año.

Hasta 2019 organizaban el festival de fuegos artificiales de Scheveningen, que atraía a alrededor de 150.000 visitantes durante un solo fin de semana. También organizan espectáculos pirotécnicos para el Zena Trophy en Kalkar (Alemania) y, cada año, realizan el espectáculo de clausura durante los Días del Puerto Mundial en el corazón de Róterdam. La seguridad y la fiabilidad son los valores fundamentales de la empresa.

- **Abuztuak 10 agosto | Pirotecnia Tamarit (Valentzia | Valencia).**

Pirotecnia Tamarit Valentziako Erkidegotik datorkigu; gaur egungo panoraman indarra hartzen ari den enpresa nabarmenetako bat da. Piroteknia valentziarraren funtsari leial, bere lanak teknika tradizionalakiko errespetua eta proposamen berritzaile eta dinamikoagoetarantzko bilakaera zaindua uztartzen ditu.

Masclètà-etan eta intentsitate handiko ikuskizunetan espezialistak dira, eta erritmo progresiboa, soinu-karga indartsua eta ikusleekin zuzenean konektatzen duten amaiera sendoak dituzte ezaugarri. Azken urteetan, ospe handiko lehiaketetan parte hartu ditu, hala nola Bilboko Aste Nagusiko Nazioarteko Su Artifizialen Lehiaketa eta Castellóko Masclètàs de la Magdalena Lehiaketan. Gainera, Alacanteko Hogueras lehiaketa ezagunean ohiko enpresa izaten da. Nazioartean duen proiektzioak Kanadako Global Fest bezalako jaialdietara eta Frantziako ospakizun garrantzitsuetara ere eramán du.

Desde la Comunidad Valenciana, cuna de la tradición pirotécnica, Pirotecnia Tamarit se ha consolidado como una de las firmas emergentes más destacadas del panorama actual. Fiel a la esencia de la pirotecnia valenciana, su trabajo combina el respeto por las técnicas tradicionales con una cuidada evolución hacia propuestas más innovadoras y dinámicas.

Especialistas en masclètàs y espectáculos de gran intensidad, sus disparos se caracterizan por un ritmo progresivo, una potente carga sonora y finales contundentes que conectan directamente con el público. En los últimos años ha participado en certámenes de prestigio como el Concurso Internacional Villa de Bilbao y el Concurso de Masclètàs de la Magdalena de Castellón, además de ser una firma habitual en el reconocido concurso de Hogueras de Alicante. Su proyección internacional la ha llevado también a festivales como GlobalFest en Canadá y a importantes celebraciones en Francia.

- **Abuztuak 11 agosto | Phoenix Fireworks (Erresuma Batua | R. Unido).**

Phoenix Fireworks enpresa britainiarrak, 1972an hasi zuen ibilbidea eta erreferentziatzko enpresa bihurtu da piroteknia sektorean. Urteetan zehar, hazkunde handia izan du, bere jarduera Erresuma Batuan zehar hedatuz eta bere ikuskizunen kalitategatik eta antolatze gaitasunagatik ezaguna den enpresa gisa sendotuz.

Eskala handiko ikuskizun piroteknikoen diseinuan eta gauzatzean espezializatuta dago, eta efektuen hautaketa, konposizio musikala eta diseinu eszenikoa integratzen dituen plangintza zorrotzagatik nabarmentzen da bere lana. Horren ondorioz, muntaia oso sinkronizatuak eta inpaktu bisual handikoak sortzen dira. Tradizioa, bikaintasun teknikoa eta sormena uztartzen ditu, eta erreferentziatzko konpainia bihurtzen du sektore pirotekniko profesionalan. Phoenix Fireworks, Erresuma Batuko su artifizialen bi lehiaketa nagusietan aritu da lehian eta baita irabazi ere: British Firework Championships eta British Musical Firework Championships.

Phoenix Fireworks es una empresa británica de referencia en el sector de la pirotecnia, con una trayectoria que se remonta a 1972. A lo largo de los años ha experimentado un importante crecimiento, expandiendo su actividad por todo el Reino Unido y consolidándose como una firma reconocida por la calidad de sus espectáculos y su capacidad organizativa.

Especializada en el diseño y ejecución de espectáculos pirotécnicos a gran escala, su trabajo destaca por una meticulosa planificación que integra selección de efectos, composición musical y diseño escénico, dando lugar a montajes altamente sincronizados y de gran impacto visual. Una combinación de tradición, excelencia técnica y creatividad, que la convierte en una compañía de referencia dentro del sector pirotécnico profesional. Phoenix ha competido y ganado en los dos principales concursos de fuegos artificiales del Reino Unido: el British Firework Championships y el British Musical Firework Championships.

- **Abuztuak 12 agosto | Pirotecnia Valenciana (Valentzia | Valencia).**

Pirotecnia Valenciana 1965ean sortu zuen Manuel Crespo Ortellsek, eta sektoreko etxe ezagunenetako bat da. 1992an hil ondoren, José Manuel Crespo Vidal semeak eta María Vidal haren amak hartu zuten familiako enpresaren lekukoa, eta José Manuel, 17 urte besterik ez zituela, Espainiako piroteknikari gazteena bihurtu zen. Llanera de Ranesen (Valentzia) du egoitza piroteknia honek. Suaren artearekiko tradizio luze eta grinatsua duen eskualdea da Valentzia, eta erritmoz, kolorez eta tradizioz betetako ikuskizunen diseinuan maisutasunagatik nabarmentzen da.

Donostian, azken hiru urteetan (2023an, 2024an eta 2025ean) Urrezko Maskorra lortu eta gero, gure hirian izango da berriro garaienaren bila.

Fundada en 1965 por Manuel Crespo Ortells, Pirotecnia Valenciana es una de las firmas más emblemáticas del sector. Tras su fallecimiento en 1992, su hijo José Manuel Crespo Vidal y la madre de este, María Vidal, toman el relevo de la empresa familiar y José Manuel, con tan solo 17 años, se convierte en el pirotécnico más joven de España. Con sede en Llanera de Ranes (Valencia), una región con una larga y apasionada tradición por el arte del fuego, esta pirotecnia destaca por su maestría en el diseño de espectáculos llenos de ritmo, color y tradición.

Pirotecnia Valenciana estará presente una vez más en nuestra ciudad tras lograr un hito histórico y obtener la Concha de Oro durante los últimos tres años consecutivos (2023, 2024 y 2025),

- **Abuztuak 13 agosto | Gianni Vaccalluzzo (Italia).**

Siziliatik, mende bat baino gehiagoko tradizioarekin, Vaccalluzzo familiak “suaren kultura” eta nazioarteko piroteknia italiarraren bikintasuna irudikatzen ditu. Belaunaldiz belaunaldi transmititutako artisau-jakintza baten oinordekoa da, eta konpainiak eboluzionatzen jakin du, azken teknologia erabiliz, zehaztasun eta edertasun handiko ikuskizunak sortzeko.

Nazioarteko jaialdi entzutetsuetan aintzatetsia eta hainbat lehiaketatan saritua izan den artearen eta teknikaren konbinazioa da Vaccalluzzo, eta jaurtiketa bakoitza argiaren, kolorearen eta soinuaren benetako koreografia bihurtzeko duen gaitasunagatik nabarmentzen da. Bere ikuskizun piromusikalak, kontu handiz sinkronizatuak, zerua emozioz beteriko eszenatoki bihurtzen dute.

Desde Sicilia y con más de un siglo de tradición, la familia Vaccalluzzo representa la auténtica “cultura del fuego” y la excelencia de la pirotecnia italiana a nivel internacional. Heredera de un saber artesanal transmitido generación tras generación, la compañía ha sabido evolucionar incorporando las últimas tecnologías para crear espectáculos de gran precisión y belleza.

Una combinación de arte y técnica que ha sido reconocida en prestigiosos festivales internacionales y galardonada en múltiples competiciones, Vaccalluzzo destaca por su capacidad para transformar cada lanzamiento en una auténtica coreografía de luz, color y sonido. Sus espectáculos piromusicales, cuidadosamente sincronizados, convierten el cielo en un escenario lleno de emoción.

- **Abuztuak 14 agosto | Pirotecnia Gironina (Valentzia | Valencia).**

Pirotecnia Gironinak zazpi hamarkada baino gehiagoko esperientzia du, eta Espainiako piroteknia-panoramaren enpresa ezagun eta egonkorrenetako bat da. Valentziako tradizioan sustraituta, enpresak artisauek jakintza eta bilakaera teknikoa uztartzen ditu, eta ikuskizun orekatuak, zehatzak eta ikus eta soinu inpaktu handikoak sortzen ditu. Teknikaren eta emozioaren arteko harmonia zainduak, ikusleek zein epaimahaiek asko baloratzen dituzten proposamenak bihurtu ditu bere ikuskizunak.

Bere ibilbidean zehar, Pirotecnia Gironinak Estatuko lehiaketa garrantzitsuenetako batzuetan parte hartu du, hala nola Alacanteko Hogueras-etan edo Valentziako Falletan, eta Espainiako hainbat tokitan ere egin ditu ekitaldiak, zirkuitu lehiakorren duen presentzia sendotuz. 2019an, Donostiako Su Artifizialen Nazioarteko Lehiaketan parte hartu zuen; beraz, hau izango da Donostiako badiaren egingo duen bigarren agerraldia.

Con más de siete décadas de experiencia, Pirotecnia Gironina se ha consolidado como una de las firmas más reconocidas y estables del panorama pirotécnico español. Con raíces en la tradición valenciana, la empresa combina el saber artesanal con la evolución técnica, dando lugar a espectáculos equilibrados, precisos y de gran impacto visual y sonoro. Una cuidada armonía entre técnica y emoción ha convertido sus espectáculos en propuestas muy valoradas tanto por el público como por los diferentes jurados.

A lo largo de su trayectoria, Pirotecnia Gironina ha participado en algunos de los certámenes más importantes del panorama nacional, como las Hogueras de Alicante o las Fallas de Valencia, además de eventos en diferentes puntos de la geografía española, consolidando su presencia en el circuito competitivo. En 2019, ya participó en el Concurso Internacional de Fuegos Artificiales de Donostia / San Sebastián por lo que esta será su segunda presencia en la bahía donostiarra,



ASTE NAGUSIKO AMAIERA | CLAUSURA SEMANA GRANDE

- **Abuztuak 15 agosto | Pirotecnia Valecea (Araba | Álava).**
Amaierako ikuskizun piromusikala
Espectáculo piromusical de clausura

VALECEA PIROTEKNIA: 150 URTE ZERUAK ARGITZEN

1876an sortua, Valecea Piroteknia Euskadiko familia-enpresarik zaharrenetako bat da, eta gaur egun gure erkidegoan jardunean jarraitzen duen su artifizialen fabrikatzaile bakarra. Valdecantos Martínez de Lecea familiako bost belaunaldik bizirik mantendu eta garatu dute ofizio hau, Arabako enpresa hau estatuko eta nazioarteko erreferente bihurtuz.

Mende eta Erdiko historian zehar, Valeceak tradizioa eta berrikuntza uztartzen jakin du, teknologia berriak txertatuz, segurtasuna indartuz eta ikuskizun piroteknikoen joera berrietara egokituz, betiere aurreko belaunaldien jakintza eta esentziari eutsiz.

2026 honetan 150 urte betetzen dituela ospatzeko, eta euskal jai-tradizioarekin izan duen lotura estua eta egindako ekarpena aitortuz, Valecea Pirotekniak izango du Donostiako Nazioarteko Su Artifizialen

Lehiaketari eta Aste Nagusia 2026ari amaiera emango dien ikuskizun piromusikala eskaintzeko ardura.

Horrela, mende eta Erdiz argiaren, kolorearen eta musikaren bidez belaunaldi osoak hunkitu dituen enpresa historiko bati omenaldia egingo zaio.

VALECEA: 150 URTE IBILBIDEAN

Valecea Pirotekniaren 150. urteurrena ospatzeko sortutako ikuskizun piromusikala argiaren, kolorearen eta musikaren bidez egindako bidaia bat da. Sei garitan banatutako ibilbide honetan, garai bakoitza gogorarazten duten doinu ezagunen bidez, 1876an hasi eta gaur egunera arte iristen den historia baten pasarte nagusiak irudikatzen dira.

1875-1900. Hasierak

Georges Bizeten Carmen obrako «Toreadoreen Martxa» piezarekin hasten da ikuskizuna. XIX. mendearen amaierako handitasuna eta indarra irudikatzen ditu, Valecea familiak bere lehen urratsak eman zituen garaia gogora ekarriz.

1900-1925. Mende berri baten etorrera

Offenbachen «Can Can» ospetsuak baikortasuna eta bizitasuna ekartzen ditu gogora. Aurrerapen teknikoek eta gizartearen aldaketek markatutako urteak izan ziren, eta Valeceak bere jarduera sendotzen jarraitu zuen.

1925-1950. Swingaren eta modernitatearen garaia

«Sing, Sing, Sing» piezak jazzaren eta swingaren urrezko aroa irudikatzen du. Garai berriek erritmo berriak ekarri zituzten, eta Valeceak ere belaunaldiz belaunaldi bere historia eraikitzen jarraitu zuen.

1950-1975. Rock and rollaren iraultza

Elvis Presleyren «Jailhouse Rock» abestiak gerraosteko mundu berriaren energia eta aldaketa sozialak irudikatzen ditu. Gaztetasunak eta askatasunaren nahiak protagonismo berezia hartu zuten urte haietan.

1975-2000. Oroitzapenen garaia

Egan taldearen «Behin Batian Loiolan» eta Ana Beléne «Agapimú» piezek hainbat belaunaldiren oroitzapen eta emozioak ekartzen dituzte gogora, gertutasunez eta sentimenduz beteriko garai bati erreferentzia eginez.

2000-2025. Oraina eta etorkizuna

Neomaken «Ilargi Berriak» eta Thomas Bergersen «Ocean Princess» piezek etorkizunerako begirada irudikatzen dute. Tradizioa eta berrikuntza eskutik helduta, Valeceak ilusioz eta indarrez jarraitzen du etorkizunera begira.

PIROTECNIA VALECEA: 150 AÑOS ILUMINANDO EL CIELO

Fundada en 1876, Pirotecnica Valecea es una de las empresas familiares más antiguas de Euskadi y la única fabricante de fuegos artificiales que mantiene actualmente su actividad en nuestra comunidad. Cinco generaciones de la familia Valdecantos Martínez de Lecea han conservado y desarrollado este oficio, convirtiendo a la firma alavesa en un referente nacional e internacional.

A lo largo de siglo y medio de historia, Valecea ha sabido evolucionar incorporando nuevas tecnologías, reforzando la seguridad y adaptándose a las nuevas tendencias de los espectáculos pirotécnicos, sin renunciar a la esencia y al saber hacer heredados de sus antepasados.

Con motivo de la celebración de su 150 aniversario en 2026, y en reconocimiento a su estrecha vinculación con la tradición festiva vasca y a la trayectoria desarrollada durante todos estos años,

Pirotecnica Valecea será la encargada de poner el broche final al Concurso Internacional de Fuegos Artificiales de San Sebastián y a la propia Aste Nagusia 2026 mediante el espectáculo piromusical de clausura.

De esta manera, Donostia rendirá homenaje a una empresa histórica que, desde hace siglo y medio, continúa emocionando a generaciones enteras a través de la luz, el color y la música.

VALECEA: 150 AÑOS DE HISTORIA

El espectáculo piromusical creado con motivo del 150 aniversario de Pirotecnica Valecea propone un recorrido por la historia a través de la luz, el color y la música. Dividido en seis etapas, el espectáculo evoca los diferentes momentos de una trayectoria iniciada en 1876 y que continúa viva en la actualidad.

1875-1900. Los comienzos

La «Marcha de los Toreadores» de Carmen, de Georges Bizet, abre el espectáculo evocando la grandeza de finales del siglo XIX, la época en la que la familia Valecea inició una aventura que acabaría convirtiéndose en una de las empresas pirotécnicas más antiguas de Euskadi.

1900-1925. La llegada de un nuevo siglo

El popular «Can Can» de Offenbach refleja el optimismo y la vitalidad de las primeras décadas del siglo XX. Fueron años de transformación y progreso en los que Valecea continuó consolidando su actividad.

1925-1950. La era del swing y la modernidad

«Sing, Sing, Sing» traslada al público a los años dorados del jazz y las grandes orquestas. Nuevos ritmos y nuevas formas de entender el mundo acompañaron una etapa en la que la empresa siguió creciendo generación tras generación.

1950-1975. La revolución del rock and roll

Con «Jailhouse Rock», de Elvis Presley, llega una etapa marcada por la juventud, la modernidad y los profundos cambios sociales que transformaron la segunda mitad del siglo XX.

1975-2000. Los años de nuestros recuerdos

«Behin Batian Loiolan», de Egan, y «Agapimú», de Ana Belén, representan una época cercana y reconocible para varias generaciones, marcada por la emoción y por melodías que forman parte de la memoria colectiva.

2000-2025. Presente y futuro

«Ilargi Berriak», de Neomak, y «Ocean Princess», de Thomas Bergersen, simbolizan la mirada hacia el futuro. Tradición e innovación vuelven a darse la mano para cerrar un recorrido de siglo y medio de historia.



SARIAK | PREMIOS

Aurten berriz ere Urrezko Maskorra saria lortzeko lehiatuko dira piroteknia etxeak Donostiako Su Artifizialen Nazioarteko 60. Lehiaketan. Munduko zaharrenkoa den lehiaketa honen ospari esker antolakuntzak puntako enpresak erakartzen ditu, bai estatu osokoak baita nazioartekoak ere.

Hiru izango dira azken saria ebatziko duten epaimahaiak: Epaimahai Ofiziala, Epaimahai Gaztea eta donostiar ikusleak, egunero bidaltzen dituzten milaka botoen bidez, horretarako haien esku jarritako baliabideen bidez.

Epaimahai Ofizialak sari hauek esleituko ditu:

- Urrezko Maskorra eta 7.000 €
- Zilarrezko Maskorra eta 5.250 €
- Brontzeko Maskorra eta 3.500 €

Epaimahai Gazteak Super Amara Epaimahai Gazte Saria esleituko du: garaikur bat, Epaimahai Gaztearen puntuazio gorena jaso duen lehiaketako piroteknia konpainiarentzat.

Donostiako ikusleek Ikusleen Sari Handia emango dute.

Sariak, Ikusleen Saria salbu (artean ezagutuko ez dena), Aste Nagusiko azken egunean banatuko dira, abuztuaren 15ean, larunbata, Victoria Eugenia antzokian, bertan bildutako epaimahai Ofizialak eta epaimahai Gazteak aste osoko bildumei buruzko iritziak trukatzeko eztabaidatu eta erabaki ondoren.

Un año más la Concha de Oro será el premio por el que competirán las casas pirotécnicas a concurso en el 60 Festival Internacional de Fuegos Artificiales de Donostia/San Sebastián. El prestigio del Concurso, uno de los más antiguos del mundo, ayuda a la organización a poder contar con empresas de primer orden tanto en el plano nacional como en el internacional.

Tres serán los Jurados que determinen el palmarés final: el Jurado Oficial, el Jurado Joven y el público donostiarra a través de los miles de votos que cada día envía por los diferentes medios puestos a su disposición.


El Jurado Oficial concederá los siguientes premios:

- Concha de Oro y 7.000€
- Concha de Plata y 5.250€
- Concha de Bronce y 3.500€

El Jurado Joven concederá el Premio Jurado Joven Super Amara, consistente en un trofeo para la firma pirotécnica del concurso al que el Jurado Joven otorgue mayor puntuación.

El público donostiarra otorgará el Gran Premio del Público.

La entrega de premios (excepto el Premio del Público que aún no se conocerá) se realizará el último día de la Semana Grande, sábado 15 de agosto, en el Teatro Victoria Eugenia tras la deliberación y decisión de los jurados Oficial y Joven allí reunidos para intercambiar opiniones sobre las colecciones de toda la semana.



EPAIMAHAI GAZTEA |

JURADO JOVEN

Epaimahai gaztea 16 eta 25 urte arteko gazteek osatzen dute. Egunero, toki desberdinetatik ikusiko dituzte su artifizialak, suen azterketa osatua egiteko; gero, puntu jakin batean elkartuko dira, irudipenak eta iritziak elkarri adierazteko. Epaimahai Ofizialak bezala, puntuazioa ebazteko hainbat alderdi hartuko dituzte kontuan: kolorea, argitasuna, su bildumaren erritmoa, musikaltasuna, erabilitako piroteknia efektuak eta abar.

Epaimahai horretan parte hartu ahal izateko, Festak unitatearen web orrian, <https://astenagusia.donostiakultura.eus/eu/> eman behar da izena uztailaren 27tik eta abuztuaren 3ko 23.59ak baino lehen, eta Aste Nagusiko gau guztietan suak ikusteko konpromisoa hartu.

El jurado joven está compuesto por jóvenes de edades comprendidas entre los 16 y los 25 años. Todos los días visionan los fuegos artificiales desde distintos lugares con el fin de cumplimentar un análisis completo de los fuegos, reuniéndose después en un punto determinado para el intercambio de impresiones y opiniones. Al igual que el Jurado Oficial, tienen en cuenta varios aspectos para determinar sus puntuaciones: colorido, luminosidad, ritmo de la colección, musicalidad de la misma, efectos pirotécnicos utilizados, novedad de los efectos utilizados, etc.

Para poder participar en este Jurado, sólo hay que inscribirse a partir del 27 de julio y hasta las 23.59 del día 3 de agosto en la página web de Festak <https://astenagusia.donostiakultura.eus/es/> y comprometerse a ver los fuegos todas las noches de la Semana Grande



HERRI EPAIMAHAIA | JURADO POPULAR



Zu ere epaimahaikide izan zaitezke. Nola bozka dezakezu?

- **Super Amara supermerkatuetan.**
- **Super Amarako webgunean (<https://astenagusia.donostiakultura.eus>, abuztuaren 8ko 23:00etatik abuztuaren 16ko 23:59ra).**

Bozkatzeko modalitate hau erabiltzen dutenek honako zozketa honetan hartuko dute:

- **500 €-ko erosketa-txartela SUPER AMARA-n**
- **Bigarren ta hirugarren sariak El Diario Vasco egunkariak emango ditu eta alde zurretik jakinaraziko da.**

Tú también puedes ser el jurado. ¿Cómo puedes votar?

- **En los supermercados Super Amara**
- **En la página web de Super Amara (<https://astenagusia.donostiakultura.eus/es/>) desde el día 8 de agosto a las 23:00 horas hasta el día 16 de agosto a las 23.59 horas.**

Entre los participantes que utilicen esta modalidad de voto se sortearán:

- **Vale de compra en SUPER AMARA por valor de 500€**
- **Un segundo y un tercer premio ofrecido por El Diario Vasco y que se comunicará con la debida antelación.**



SEGURTASUN NEURRIAK | MEDIDAS DE SEGURIDAD

Segurtasuna bermatu ahal izateko, bete itzazu hurrengo arauak

1. Material piroteknikoa kokatzen den aldea itxita egongo da aste osoan. Bertan sartzea debekatua dago baimenduta ez dagoen edonorentzat. Errespetatu segurtasun arduradunak emandako irizpideak eta ez gainditu hesiekin edo zintarekin itxita dagoen eremua.
2. Gauero, 22:00etatik aurrera, jendeari irtenarazi egingo zaio jaurtitze inguruneetatik, eta bertara sartzea debekatua egongo da. Eremu horretako bizilagunek gaueko 22:30ak baino lehenago etxeratu beharko dute.
3. Aparkalekuetako erabiltzaileek 22:00ak baino lehenago utzi beharko dituzte ibilgailuak, eta ezingo dituzte atera 23:30ak baino lehenago. Jaurtiketa edozein arrazoirengatik atzeratzen bada, ibilgailuak ezin izango dira erretiratu ikuskizuna amaitu eta 30 minutu igaro arte.
4. Inguruan dauden etxebizitza eta lokalen leiho eta balkoiak ixtea eta elementu errekorrak kentzea (arropa, toloak, hamakak...) gomendatzen da.
5. Su artifizialak jaurtitzean, maiz erortzen dira errauts hondakinak. Begietan sartuz gero, ur askorekin garbitzea komeni da, eta ez igurztea.
6. Jakinarazten dugu su artifizialen jaurtiketa ezingo dela ikusi jaurtiketa-zonaren inguruko eraikinetako terraza, balkoi edo leihoetatik.
7. Lagun gaitzazu eta aparka ezazu zure ibilgailua segurtasun eremutik kanpo, elementuren bat erori dakioko eta.
8. Gauero, ikuskizuna amaitutakoan, udal zerbitzuek itxitako inguruneak miatuko dituzte, hondakin piroteknikoen bila, 10 minutuz Jendea sartu ondoren, material susmagarririk aurkitzen baduzu, ez ukitu, ez bultza hankarekin, eztanda egin dezake eta. Ez eskutan erabili, aldendu eta jendeari arriskuaren berri eman. Segituan bilatutakoaren berri eman gertueneko segurtasun arduradunari edo agenteari.
9. Adin txikiko haur baten arduraduna bazara: haurra galduko balitzaizu jakinarazi iezaiozu udaltzaingoari edo antolakuntzari. Behin eta berriro debekatu iezaiozu haurrari material piroteknikorik ukitzen, kalte ondorio larriak sor ditzake eta.
10. Ikuskizuna bitartean, gaixotu (lipotimiak, zorabioak eta abar) edo zauriren bat izan ezker, segurtasun arduradun batengana edo inguruan aurkitzen diren osasun langileengana hurbildu zaitez.
11. Itsasoan: suak ikusteko badiara irteten diren ontzi patroiek dagokion agintarien instrukzioak bete beharko dituzte zehatz-mehatz.

12. Haizeagatiko esekidura: indarrean dagoen araudian ezarritakoa baino abiadura handiagoko jaurtiketa bat etetea, udaletxeko eraikinean instalatutako anemometroak jasotako neurria egiaztatu ondoren gertatuko da. Ikuskizuna hasi aurreko neurketak 22:30ean eta 22:40an egingo dira: abiadura ezarritakoa baino txikiagoa bada, suak 22:45ean hasiko dira; handiagoa bada, 22:50 eta 23:30 bitartean hamar minuturo egingo dira neurketak. Neurketa egin ondoren, jaurti egingo dira, haizeak baretu egin duela egiaztatzen bada, eta ikuskizuna bertan behera geratuko da, 23:30k neurketak ezarritako maximoa gainditzen jarraitzen badu.



Para garantía de seguridad siga estrictamente las siguientes pautas

1. La zona donde se coloca el material pirotécnico permanece acotada durante toda la semana, estando prohibido el acceso a la misma a personal no autorizado. Respete las instrucciones del personal de seguridad y no sobrepase el perímetro de seguridad acotado con vallas y/o cinta.
2. Cada noche a partir de las 22:h se desaloja al público de una amplia zona periférica al lugar de disparo de las colecciones estando prohibido el acceso a la misma. Las personas que habitan en dicha área deberán acceder a sus domicilios antes de las 22:30h.
3. Las personas que utilizan los parkings afectados deberán estacionar sus vehículos en el parking antes de las 22:00h, no pudiendo retirarlos antes de las 23:30h. Si el lanzamiento se retrasara por cualquier motivo, los vehículos no podrán ser retirados hasta que transcurran 30 minutos del final del espectáculo
4. Se recomienda cerrar ventanas y balcones en las viviendas y locales próximos, así como retirar cualquier material combustible (ropa, toldos, hamacas...).
5. Durante el disparo de los fuegos artificiales es frecuente que caigan restos de ceniza. En caso de introducirse en los ojos, conviene enjuagar con agua abundante y no restregarse.
6. Se comunica que no se podrá presenciar el disparo de Fuegos Artificiales desde las terrazas, balcones o ventanas de los edificios circundantes a la zona de lanzamiento.
7. Colabore aparcando su vehículo fuera de la Zona de Seguridad, puede que le caiga algún resto.
8. Cada noche, una vez terminada la colección de fuegos los servicios municipales correspondientes rastrearán durante 10 minutos la zona amplia de acotado en busca de restos pirotécnicos. Una vez permitido el acceso de público, si encontrara algún material sospechoso de peligro no lo toque, ni lo empuje con el pie, puede explotar. En cualquier caso, nunca lo manipule, aléjese y alerte de su presencia a otras personas. Avise inmediatamente al personal de seguridad o al agente de autoridad más próximo.
9. Si es responsable de un menor: en caso de extravío, póngase en contacto con la Guardia Municipal o personal de la organización. Reiteren la prohibición de tocar o manipular cualquier resto de material pirotécnico a menores, pueden causar daños irreversibles.
10. Durante el espectáculo, en caso de sentirse mal (lipotimias, mareos, etc.) o sufrir una herida, acuda al personal de seguridad o sanitario que se encuentra en las inmediaciones de la Zona de Seguridad.
11. En el mar: las personas responsables de las embarcaciones que salgan a la bahía para presenciar los fuegos deberán seguir estrictamente las instrucciones de la autoridad competente.
12. Suspensión por viento: La suspensión de un lanzamiento a velocidad superior a la establecida en la normativa vigente se producirá una vez comprobada la medida recibida por el anemómetro instalado en el edificio consistorial. Los encuentros previos al inicio del espectáculo se realizarán a las 22:30 y 22:40 horas: si la velocidad es inferior a la establecida, los fuegos comenzarán a las 22:45 horas; si es superior, las mediciones se realizarán entre las 22:50 y las 23:30 horas cada diez minutos. Una vez realizado el encuentro, se lanzarán si se comprueba que el viento ha calmado y el espectáculo quedará suspendido si a las 23:30 horas el encuentro sigue superando el máximo establecido.



DONOSTIA KULTURA FESTAK
KONSTITUZIO PLAZA 1.1

943481168

<https://astenagusia.donostiakultura.eus/es/>